

AGUSTIN GARAI LETAMENDI

Udiaren akaberia gañian dakogu, eta aurtengo bakaziñuak be gehixenontzat akabota. Urrintxuago edo hurtxuago hor ibiltten gara sasoi honetan bazterrik bazter kanping, hotel, ostatu eta abarretan. Gaurkuan gurekin dakogun

oñatiarrak gure inguruak ezaguketara dato- rren hainbat turistari ostatu emuten xao bere Zegamako baserrixan, gero eta gehixago entzuten dan Nekazal Turismuaren abenturan sartuta dago eta.

- Noiz hasi ziñain nekazal turismuaren kontu honetan?

Orain dala hiru urte, aurtengo Aste Santutan hiru urte bete dira.

- Zer dala eta Zegaman?

Baserrixa hantxe erositta geunkalako. Obrak egitako diru-laguntzia eta permisua emun oskuen eta baserrixa konpondu geben.

-Diru-laguntza hori zeñiek emuten dau, Diputaziñuak ala Jaurlaritzak?


Erdi eta erdi emuten daue, erdixa Diputaziñuak eta beste erdixa Gobernuak. Nekazal turismoa danez, "Camara agrariatik" zuzenketan daue dana, informaziñua, baldintzak, azpiegitturia... Honetan pixurik haundixena Jaurlaritzako Turismo saillak dako eta honeik arduraketan dira etxia zela daguen ikusten eta bestelako kontrol lanetan.

-Kontrol zorrotza izaten da?

Ez oso zorrotza, baiña gutxieneko baldintza batzuk bete egin bihar dira; hainbeste metroko logelak, hainbeste kumun... Esate baterako gehixen 6 logela, hortik gora ez da ametitten; minimorik eztot uste daguenik.

-Zein da zuen eskeinttia: lolekua bakarrik, jatorduak?

Derrigorrezkoa da lolekua eta armozua eskeinttia. Bezero batzuk eztaue gura izaten armozaittia, baiña eskaketan badaue, emuteko obligaziñua dakogu. Hortik aparte bazkarixak eta afarixak be emuten dira leku batzuetan. Badagoz etxe batzuk lehenagotik jatetxiak edo merenderuak ziranak eta horreik hiru jatorduak emuten dittue. Beste batzuk, eta guk be hori egin gura



Egunero etorten da Agustín Zegamatik karnazerixan lan egittera.

dogu, bezeruendako sukaldia aparte jarten daue.

-Normalian turistak bertan jaten daue?

Kosta aldeko herrixetan eztago problemarik afaiteko eta bazkaietako lekuak

topaitteko, baiña barrukaldian abuztuan dana itxitta egoten da eta jentia eztaue zentat kilometro egin bihar izaten dau zerbaite afaldu ahal izateko.

-Zegaman be hola izaten da?

Bai, zela herri txikixa dan eta, herrixan jatetxe bat baldin badago, hareik normalian bakaziñuak abuztuan hartzen zituene, eurentzako hona 4-5 turista etortia ezta ezer, eztaue hortik bizimodua ataraten.

-Zein eratako jentia izaten dozue?

30-40 urte inguruak; gehixen-tan bikotiak, batzuetan gurasuak seme-alabe-kin, baiña ezta hain normalena. Batzuk baserri-ekin egotia gura izaten daue; kuadrillan etorten diranak ez hainbeste, euren bizimodua egin gura izaten daue.

“Santiago-bidia dala eta kanpotar asko etorri dira.”

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA



GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREKIN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

IZOZKI

Era guztietako izozkiak

Olakua, 9 Tfnoa: 78 34 28
Haragiak. Arrainak. Barazkiak. Maskorak. Gozokiak

-Zein aldetatik etorten dira?

Gehixenak Kataluñiatik datoz, askogatik gaiñera, batez be udan. Gero aste-buru luzietan eta, bertako jentia be bai, Donostiakua, Bilbokua eta Iruñakua etorri izan da.

-Egonaldi luziak egitten dittu jentiak?

Danera, normalian ez; astebete edo 15 egun be egitten dittue batzuk baina normalian 4-5 egun edo asteburuak; eta gau baterako be bai, leku batetik bestera doian jentia. Nazional Ia guretik urrin barik pasaiten dan ezkeru, jentia samur topaitten dau gure etxia.

-Zuenera oporretan etorten diranak inguruak ikustera datoz ala trakil egon eta deskantsaittera?

Gehixenak egunero urteten daue, baitta leku lasaixen billa datozenak be; batzutan hondartzara, bestetan inguruko mendieta-
ra. Gutxienez San Adrianerañio gehixenak allegaitten dira. Santiago-bidia oiñez egitten daueñiak be etorri izan dira, Tolosatik Zegamara eta hurrengo etapan Agurainerañio. Honeik extranjeruak izaten dira betik.

-Oñatirako jokararik badakoi turistak?

Bai, geu be oñatiarrak izanda, honuntz bialketan dittugu, baiña normalian aurretik izaten daue Oñati eta Arantzazuko informaziñua. Euskal Herri barruko herri tipiko moduan ezaguna daue, itxuria danez.

-Eta gustora geraketan dira?

Bai, Oñati eta inguruarekin oso pozik geraketan dira, baiña Arantzazuri buruzko iritzixak ez dira berdifiak izaten: batzuk txokauta geldiketan dira hain gauza



Arrieta Haundi baserrixa Aizkorri azpitan.

modernua ikusitta; eta askok Txillidaren kontua dala uste daue: "es de Txillida" esaten daue, nahiz eta beria atiak besterik ez izan.

-Nekazal turismoak inddarrik hartuko dau?

Jentiak gero eta gehixago ezauketan dau eta eskabidia badago, baiña administrazioa estuketan hasi xaku. Hasieran dana bentajak ziran eta nekazal turismoari baserrixak inddarketako beste aktibidade baten moduan lagundu xakon, baina orain ostalari-tzakako negozio moduan jartia gura daue eta kostaldian akaso hortik bizimodua atara ahal izango da, baiña barrukaldian iñundik iñora be ez.

-Baserrri lanak aittatu dittuzu, denpora asko emuten dozue horretan?

Ez gura beste, egunero Oñatira lanera etorri bihar izaten dotelako.

-Ganaurik badakozue?

Ganaurik ez, baiña bai ortu sail haundi samarra eta fruta arbolak; hala ta guztiz be eztago hortik bizimodua ataraterik. Hasi giñan masustak, groseillak, franbuesak eta holako fruta txikiñakin eta prueba moduan barietade askotakuak sartu gittuan. Baiña hemen orainddiok eztago halako frutuak jateko ohitturarik, Argiñakok eta Subijanak askotan aittatu arren. Horregatik guk mermeladak egitten dittugu eta honeik bai dakoilla urtenbide hobia.

-Badakigu eztozeilla botikarik erabiltten ortuan?

Ez, eztozu produkto kimikorik erabiltten; zorrixak edo gorriña edo dana dala-kuak gauza naturalekin trataitten dittugu, asun-urarekin, azeri-buztanarekin...

-Eta hola hazittako barazkixak badakoi eskabiderik?

Hemen orainddiok gutxi, baiña Inglaterran eta aspalditxoko ohitturia da holako produktuak erostia; guk geuk be han ikasi geben eta gero Diputaziñuak organizatutako kursillotan be ibilli da nere andria. Dana dala, hemen be apurka apurka badoiaz sartuaz produkto biologikoak. Orain dala urte bete sortu zan "Biolur" Gipuzkuako nekazari biologikuen asoziaziñua eta aurrera begira bide hau zabalduko dala emuten dau.

Oñati oso herri polita dala esaten daue turista lanak; Arantzazu kolizia, barriz, batzuentzat larreako modernua da."

Baserrri-lanak ezaguketara baiño gehixago lasaittasun billa etorten da jentia nekazal turismo-tara."

CMC
SANTA CRUZ
 METALEZKO ERAIKUNTZAK
 Galdereria. Errementeria
 Goribar, 5 Tfnoa: 78 10 06 Faxa: 78 33 36 OÑATI

Pintxo bereziak. Kafeak
IZARRAITZ
taberna
Giro ezin hobea
Tfnoak: 78 22 47/ 71 61 39 (Etxekoa) OÑATI